

Autoerregulazioa, autogobernua, autodeterminazioa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA
@aneelixabete



ANTTON OLARIAGA

Autorregulazioa eta direktibismoa, haurtzaroa zaintzeko eta heziketa ulertzeko existitzen diren bi paradigma nagusiak dira. Heziketari loturik ezagutzen ditugu batez ere bi kontzeptuak, baina bizitzeko modu gisa ere uler litezke, heziketa ez baita haurrak egoki heitzeko hautatzen dugun teknika bat, hurrekin erlazionatzeko helduok dugun harremana baizik. Nik bizitzearen sinonimo gisa irudikatzen dut heziketa, bizitzeko gure moduak inguruko haurrengan duen efektuaren zentzuan. Hori baino ez, baina hori guzia ere bai.

Erlazioan hazten eta bizi garen espeziea garelako, oso beharrezkoa dugu erlazio horren nolakotasunari buruz gogoeta egitea, aldagai erabakigarriena delako gure izatearen konfigurazioan, eta eragin zuzena duelako bizimoduaren kalitatean. Haurtzaroan, heldu batzuekiko harreman estuan garatzen gara. Eta helduaroan ere, pertsonen arteko harreman-sarean gertatzen zaizkigu bizitzaren gazi-gozo gehienak.

Harreman baten zilegitasuna eta kalitatea kualitate bakar batek du erabakitzen: partaide diren horien askatasuna errespetatua izateak. Bakoitza libre izan dadila den bezalakoa izateko, bere errealitate-esparrua libreki kudea-

tzeko, bere jabetza-pekoea baino ez den territorio libre horretan jaun/andere bakar izateko. Printzipio horien araberrako harremanak ez dira ohikoak, pertsona burujabeez osaturik egotearen baldintza dutelako, eta jende libre ez delako ohikoa. Libre izateko, hurbiletik babestu beharra dago askatasunaren eremu sakratua, eta geure baitarako konexio estua zorrozki mantendu. Izan ere, geure izatearen kontrako eraso bat identifikatuko badugu, nor eta nolakoak garen jakin behar dugu, gure modelazioa helburu duen manipulazioa, edo gure gainetik kokatu nahi duen gidari zapaltzailearen zantzurik txikiena ere antzemateko.

Norbaitek eraso egin izanaren kontzientzia edukitzea da lehen pausoa. Eta defenditzeko bezainbeste indar biltzea, bigarrena. Sano dauden organismoek oso aktibo dute defentsa-mekanismo hori. Bizirik daudelako eta bizirik dauden bitartean, hil ala bizikoa zaielako. Haur txikiek esaterako, duintasun handia erakusten dute eskubidez dagokiena defendatzerakoan. Baina itzali egiten zaie gero indar berezko hori, haurren borondatea doblegatzea helburu duten ekosistema oso direktiboetan, batez ere. Amore ematen dute,

oinarrizko eskubideak errespetaraztea ezinezkoa zaiela sentitzen dutelako, eskura duten indar guzia baliaturik ere. Erabaki horretantxe dauka jatorria etsipen karakterialak. Norbere indarraren gaineko konfiantza galdurik, bizitzaren gidaritza menderatzailearen esku uzten duenekoan, alegia.

Hortik aurrera, menderatzailearen gan jarriko du arreta osoa. Bere gainean duen boterea aitortuta, askapenerako giltza hark duela onartu duelako, eta egoera horretan beregan eragitea beste estrategiarik ez duela irudituko zaio-lako. Horrela, bat: edo esaneko bilakatu da, haren gustua eginez errukia lortuko duelako esperantzan. Edo, bi: egiten zaizkion bidegabekerien kontra erreakzionatuko du, baina oharitu gabe erreakzio hutsean ari dela, eta ez diola menderatzailearen txotxongilo izateari uzten, probokazioen bitartez ere markatzen ahal delako menderatu nahi dugun horren bizitza-politika. Autogobernurako gai izateari uzten diote, edo herri menderatuen kasuan gauza bera dena, autodeterminazioa gauzatzeari. Hurbiletik ezagutzen dut horietako bat, askatasuna nahi edo behar duen galdera egitera ere iritsi da. Eta baimena eskatzera. Pentsa. ●